

# Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

## Afganistan: **terrorismoari aurre egiteko gerra ote da?**

1.



CORDON PRESS



CORDON PRESS

1. Idatzi 1. argazkiak iradokitako 5 hitz

---

---

2. Idatzi 2. argazkiak iradokitako 5 hitz

---

---

3. Begiratu 3. argazkia eta erantzun:

Zer egiten ari dira pertsona horiek?

---

---

Zure ustez, nor ote dira?

---

---

Zer ari dira eskatzen?

---

---

4. Zure ustez, 3. argazkiko pertsonak zergatik ari dira "Gerrarik ez" esaten?

Galdera horri erantzun baino lehen, ondoko jarduera hauek eginen ditugu

---


---

---



SUSANNA SAEZ

## 2. Nor ote dira “terrorismoari aurre egiteko gerra” horretako irabazleak?



**Mujaidinak** Kabul hiriaz jabetu zirenean, Estatu Batuetako Estatu Departamentuak ohar bat argitara eman eta esan zuen haien garaipena “ona” zela. Lortu baitzuten sobietarrak kanporatzea. Handik denbora laburrera, Afganistango mendebalde zeharkatuko zuen gas-hodiaren proiektua diseinatu zen. Gas-hodiaren bitartez, Turkmenistango gas putzuak (herrialde hori oso aberatsa da gas hidrokarburo horretan, gasa dutenen herrialdeen artean hirugarrena baita) eta azpikontinente indiarra lotuko ziren. Proiektu hori “XXI. mendeko merkataritza bide berria izanen litzateke, “zeta beltzaren” bide berria”, errusiarren bidea (Kaspiar itsasoa) eta irlandarren bidea bazter utziko zituen. Horrek on egingen lieke Estatu Batuen interesei. Proiektu hura Unocal konpainia amerikarraren esku zegoen, Saudi Arabiako Delta Oil etxeari lotua. Proiektuak, ordea, ez zuen aurrera ateratzerik izan, talibanak ez baitziren estatubatuarren oso adiskide gertatu, lehenago ere sobietarrenak gertatu ez ziren bezalaxe.

### Komeni da hauxe jakitea:

George Bush presidente ohiak Bush-Overbey Oil Development Company eta Zapata Petroleum Corporation enpresak sortu zituen. Semea, G. W. Busch, EEBBetako egungo presidentea, alegia, beste konpainia batean hasi zen, Arbusto izenekoa. Condoleeza Rice anderea EEBBetako egungo presidentearen aholkularia da seguritateko. Chevron enpresan lan egin zuen eta konpainia horretako petroliontzi batek haren izena darama.

Dick Cheney, EEBBetako presidenteordea, Halliburton enpresako presidentea izan zen, munduko hornitzaile handiena da petrolio konpainiendako zerbitzu eta produktuetan.

“Terrorismoren kontrako” gerra horri, hasieran, “Justizia infinitua” deitu zitzaion eta gero, aldiz, “Askatasun Iraunkorra”. Hasierako helburua omen zen Ossama Bin Laden harrapatzea eta bera buru duen Al Qaeda antolamendua desegitea. Bin Laden Estatu Batuen “etsai nagusia” deklaratu dute eta laurogeiko hamarkadan islamista arabiarren liga zuzendu zuen. Talde horrek, afganiarrekin batera, errusiarren aurka borrokatu zuen. Garai hartan, EEBBek eta amerikarren informazio zerbitzuek laguntza eman zioten, talibane ere lagundu zieten bezala. Orain, Estatu Batuek talibanak kanporatu nahi dituzte Afganistango Gobernutik.



### INFORMAZIO GEHIAGO

Petrolio konpainiei buruz:  
[www.pdv.com/espanol](http://www.pdv.com/espanol)

Unocal konpainiaren gas-hodiaz:  
[www.pagina12.com.ar/2000/00-11/00-11-27/pag13.htm](http://www.pagina12.com.ar/2000/00-11/00-11-27/pag13.htm)



5. Aurreko informazio hori gelan irakurri eta iruzkindu ondoren, erantzun iezaiozue ondoko galderari. Estatu Batuek lortzen badute talibanein agintea kentzea, esanen digute denok libratu garelako terroristak munduratzeko dituen kabi horretatik. Baina, zein litzateke aipatu gabe darabilten beste helburua?

---

---

6. Irakurri, egunotan, prentsan agertutako larroburu batzuk eta esan ezazu ea zer iradokitzen dizun jarraian datorren komikiak.

### Bushek agindua eman dio CIAri Bin Laden hiltzeko.

EL PAIS 22/10/01

### Gerrak burtsak gorantz bultzatu ditu.

EL PAIS 14/10/01

### EE BBek arma berriak probatuko dituzte Afganistanen.

EL PAIS 7/10/01


Pentagonoak, aurtan, 345.000 milioi dolar izanen ditu gastatzeko eta arma egileak nahiz defentsarako teknologia egileak pozez txoratzen daude, aurreko aurrekontuetan gastu hori murrizten ari baitzen. Donald Rumsfeld Pentagonoko burua da eta errekonozimendurako hegazkin gehiago eskatu ditu Osama Ben Laden bilatu eta harra-patzeko, Washingtonek baitio Ben Laden atentatuen egilea izan zela. Boeing prest dago bere C-9 izeneko hegazkinak azkarrago egiteko, teknologiarik aurreratuenaz horniturik daudenak.

Aireko Armadak Boeing enpresari enkargua eman dio lehergai lu adimenduna landu eta egiteko. Proiektu hori lehian ari da Lockheed-ekin.

### Pentagonoak Lockheed Martin-i eman dio historiako kontratu militarrik handiena.

EL PAIS 27/10/01

EL PAIS 7/10/01



---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



# 3. Nor ote dira “terrorismoari aurre egiteko gerra” honetako galtzaileak?



LA VANGUARDIA 8/11/01

**Gurutze Gorriak dio 500.000 afganiar gosez hil daitezkeela negu honetan.**

EL PAIS 16/10/01

**“Ez gaitzazue gu hil”.**

EL PAIS 15/10/01

**Etsipenak jota daudenen exodoa.**

EL PAIS 27/9/01

**Bonbardaketek gizon-emakume zibilak kolpatzen ditu.**

EL PAIS 29/10/01 EL PAIS 7/10/01


8. Datu horiek azertu ondoren eta prentsako lerroburuak irakurri eta gero, azaldu itzazu gerrak lekuz aldarazitako eta babes bila ihes egindako gizon-emakumeen beharrak, arazoak eta sufrimenduak.

---

---

---

9. Esan ezazu zer pentsarazten dizun komiki honek.



---

---

---

---

---

---

10. Orain, berriz ere irakur ezazu 4 galdera eta erantzun iezaiozu.

## 4. Eta guk, zer egin dezakegu?

11. Eztabaidan aritu ondoko puntu bakoitzari buruz eta egin itzazue akordioak, ahalik eta adostuenak.

- Komunikabideak zabaltzen ari dira “zibilizazioen arteko talka” gertatzen ari dela: Mendebaldea-Islam. Baina hori ez da egia. Ez al dute hori bera lortu nahi bai Bin Ladenek bai petrolioaren eta armen gaineko interesak dituztenek?
- Seguritatearen aitzakian, askatasun zibilak murrizten ari dira. Esate baterako, intimitaterako eskubidea (telefonoa, internet, etxea, joan-etorriak...) edota defentsa juridikorako eskubidea.
- Etengabe esaten ari dira konponbide bakarra indarkeria dela. Gerraren kultura sustatzen ari dira, begia begi truk jokatzea, den denok itsu utziko gaituena.
- Dagoeneko, milioika gizon-emakume afganiar larritasun gorriak hartuta bizi dira.



**Intermón  
Oxfam**